



## EDE TALDEA

### INGURUMENAREKIKO KONPROMISOAREN DEKLARAZIOA

EDE TALDEAK bere misiotik abiatuta eta garapen soziala eta pertsonala justizia eta berdintasunean oinarrituz sustatzeko duen betekizunarekin bat, Ingurumena ezinbesteko elementutzat hartzen du konpromiso hori gauzatzeko.

Hori dela eta, uste du ingurumenaren babes eta errespetua, betekizun eta jarrera osagarriak eta beharrezkoak direla bere lan sozialean.

Guzti horregatik EDE TALDEKO konpromisoa honako hau da:

“Ingurumen-jasangarritasunaren alde egingo duten ekintza, prozesu eta zerbitzuak garatu, horrela, ingurumenaren babes eta errespetuan arreta berezia jarriz, berarekin harremana duten entitate eta pertsonen, eta oro har herritarren bizi kalitatea ahalbidetzen duen ingurumena”

Adierazten eta bere gain hartzen du ingurumen arloko honako konpromiso eta printzipioak:

#### INGURUMEN PRINTZIOAK

- Ingurumen araudia bete eta ildo hori transmititu berarekin harremana duten entitate eta pertsonen artean
- Ekintza eta prozesuek eragindako ingurumen-inpaktua identifikatu eta hobetu eraginkortasun sozialetik eta bideragarritasun ekonomikotik abiatuz.
- Baliabideak modu arrazionalen erabili gastua eta hondakinak murriztuz eta eraginkortasun energetikoa eta birziklapena sustatuz.
- Administrazio ezberdinekin eta entitate publiko eta pribatuekin elkarlanean aritu ingurumenaren arazoen aurrean ingurumen-hobekuntza bilatzeko.
- Etxeko planifikazio prozesu guztietan, erabaki hartzeetan eta jardueran ingurumen irizpidea gehitu.
- Ingurumen gaiarekin loturiko jardueretan prozedurak ezarri barrutik, horrela gai honi dagozkien betebeharrak eta ardurak argi zehaztuta gera daitezzen.

- Ekintza, jasangarritasun eta ekonomia memoria ezberdinak formalizatu, baita barruko eta kanpoko beste kanal batzuk, gardentasun irizpide batekin.
- Ingurumena eta gizarte-ongizatea pertsona guztientzat direla, eta kontzeptu bateratua dela transmititu gizarteari.
- Arlo honetako helburu eta aurrerapenen inguruan informazioa eman gertukoak eta kolaboratzaileak diren entitateei eta pertsoneri
- EDE Taldearen kontratu eta harremanen lehenestean ingurumen irizpideak sartu
- Entitateko langileen eta kolaboratzaileen prestakuntza eta sentsibilizazioa sustatu ingurumen gaiei dagokienez.
- Arlo honetan hobekuntza-prozesuak ezarri, ingurumen-kudeaketaren sistema sistematikoki ebaluatuz

Bilbon, 2007ko uztailaren 7an